

Serio?

Miren Azkarate
Badiola

Sara Majarenas mintzeko intentzioz haren alaba hiltzen saiatu zen gizona aske utzi du epaileak. Nola?! Zer?! Zergatik?!

Ba bai, halaxe da, ez omen dago arrazoirik preso mantentzeko. Serio? Bi urteko alabari hainbat labankada eman ondoren, eskuak oraindik odolatan, polizia etxera joan eta «alaba hil dut» esan zuen gizon horrek; hilketa bat onartu zuen, txikiaren senitartekoei hotz-hotz telefonoz deitu eta barre artean haurra hil zuela esan zien, eta, bi

urte ondoren, epaiketa egin arte espetxealdia luzatzeko eskaera egin ostean, aske utzi dute esanez luzapen hori ez dela beharrezkoa. Serio?

Baina zein mundutan bizi gara? Ze justizia mota du herrialde honek? Zer gehiago behar da ba gizon hori libre ez izateko? Eta ez naiz ni espetxearen defentsa egingo duena, ez, ez baitut instituzio horretan sinisten. Nik kasu honetan, gainera, beste justizia mota bat ezarriko nuke! Baina zein froga gehiago behar dituzue? Ez al da ba kasu hau

larri eta argia? Kasu hau ez bada larria, zein da ba? Baina ez, ez da hori, ezta? Izarren ama, Sara, ez balitz euskal preso politiko bat, benetan gizon hau aske utziko zenukete? Ez da izango ba beste mendeku bat?!

Nik jada ez dakit zer pentsatu, *La Manada*-ren auzia eta gero, uste nuen beste eskandalu judizial bat ikusi arte denbora pasako zela, baina ez. Hamai-ka ikusteko jaioak gara... Orain jada ziur naiz dena dela posible espainiar justizian. •

Kameleoiak

Antton Izagirre

Garapenaren izenean baserri zaharra eraistera behartua, derri-gortua, izan den gizakiaren borroka juridiko, psikologiko, emozionala erakusten duen “Basque Selfie” filma ikustera bildu ginen zinemara. Ama lurraren, baserriaren, jaiotetxearen, tradizioaren, patrimonioaren defentsa unibertsala da; indigenak, bertako nekazariak, herri txikiak, munduko lurralde desberdinetan ematen den borroka horren lekuko.

Filmaren ikuspegi artistiko edo gaiaren sakontasunetik harago euskal ikuspegiarekin landua izanak eranstean dio berezitasuna eta sortu du interesa. Hala ere, zenbaiten ustetan, filmaren izenburua ingelesez eman izanak, kontaketa

koherentzia murrizten dio. Izan ere, merkatuak baserria galbidean jarri duen moduan, ez ote da koherentzia eza, filma hobeto saltzearen mesedetan euskaraz izendatzeari uko egitea?

Gaiari dagokionez, garapena ez da baserria eraistearen erruduna. Garapenaren atzean erabaki politikoak daude, eta erabakiak politikoek hartzen dituzte, izen-abizenak dituzten alderdi politikoek eta gizon-emakumeek. Herriko zinemaren filma ikustera bildutakoen artean baziren abiadura handiko trenaren afe-rak eraginda lurrak, etxebizitza galdutakoak, kaltetutako baserri jabeak, baita Udalak onartutako Hirigintza Plangintzak eraginda euren borondatearen kontra etxebizitza saltzera eta eraistera be-

hartuak izan direnak ere. Ikusten ari ginenarekin arrazoiz eta sentimenduz identifikatuak asko eta asko. Horien artean, filmaren amaieran, gaiak sortzen duen samina haserre bilakatzeko motiboa aurkitu zuten hainbatek, ikustean nola, herrian abiadura handiko trenaren eraikuntzaren bultzatzaile eta aipaturiko Hirigintza Plangintzaren sustatzaile izan zen herriko EAJko alkate ohia, filmeko protagonistari bostekoa eman eta zoriontzera bildu zen. Ez dakigu filmaren edertasunagatik, baserria eraisteak sortzen zion saminagatik ala baserriaren defentsan eginiko borrokarengatik zoriondu zuen, baina keinuaz jabetu ginenoi, politikari horien azal gogorraz konturatzeko balio izan zigun. •